

Euskaldun go!

Erdal adiskide ohi batek edo, nahiago bada, adiskide erdaldun ohi batek elkarrekin euskaraz egiten hasteko eskatu zidan orain hilabete gutxi batzuk. Hasieran arraro egiten bazitzaidan ere, eutsi diot. Nireak balira bezala bizi izan ditut haren aurrerapenak. Pentsamenduak adierazteko bide gero eta egokiagoak aurkitzen ikustean izugarri poztu naiz, eta ez bakarrik solasaldia- ren pisua modu orekatsua goan banatu ahal izateagatik, baizik eta gaien maila ere goititzen joan delako, aspaldian konplexutasunagatik utzitako gaiak berreskuratzen joan ahala.

* * *

Ustezko interesdun batek galdetu dit ea zer aplikazio (zer app) dagoen euskararen arloan. Hizkuntza ikasteko, esaterako. Jokoz kanpo harrapatu nau eta ez dut jakin zer erantzun. Dokumentatuko naizela agindu diot. Ikusi dut Duolingo aplikazio doako eta (berak bere burua deskribatzen duen moduan) dibertigarriak hainbat hizkuntza ikasteko aukera ematen duela. Ez euskara. Bai, esaterako, katalana edo guarania.

* * *

Euskarak zer aplikazio beharko lukeen buruan nerabilela, ikasi dut *Confesor Go* izeneko bat asmatu dutela eta haren bitartez sinestun katoliko erromatarrek beren fedeko apaizak lokaliza ditzakete Aitortzaren sakramentua edozein unetan jaso ahal izateko. Tentazioa handia izan da eta, doakoa denez, deskargatu dit sakelakoan, non, aplikazio berriari leku egiteko, beste bat desinstalatu behar izan baitut, esperimenduak irauten duen bitartean behintzat. Kendutakoak badu berriaren antz txikiren bat. Damua uxatzeko, pentsatu dut kentzeak penitentzia arinduko didala, azkenean aitortuz gero, noski.

Pantaila ireki eta aplikazioak galdetu dit apaiz edo aitortzaile moduan nahi dudana izena eman. Lehen aukerara jo



Angel Erro

IDAZLEA

@angelerro



Antton Olariaga

izanez gero, apaiz estatusa balioztatu beharko dut, horretarako beharrezko agiriekin suposatzen dut, aplikazioak berak adierazten didan bulegoren batean. Atzera jo eta kaleko bekatari moduan sartu naiz. Horretarako ez da deus frogatu behar. Libre den apaiz hurbilena zortzi kilometrora dago. Mapak harainoko bide bat proposatzen dizu, galbiderik ez. Apaiz batzuei, antza, eliz barruan gabe kalean dabiltzanei, profila ikusten ahal zaie, argazki batekin, jatorriarekin eta jaiotze zein apaizte urtearekin. Urrutiago daude horrelakoak baina aukera gehiago ematen diote irudimenari asmatzen saiatzeko bekatuekin barkaberago zein agertuko ote, edo baita berrietara zein irekiago ere.

* * *

Lagunak aurpegiatu dit, horrelako bat eginen balute, ni izanen nintzela lehena aurka jotzen, ironiaz erabiltzen, asmo gaiztoko zutabe bat idazten. Hirugarren ardoan bururatu arren, nire sorkaria babestu nahi dut baita neure buruarengandik ere. Itsustu diot, beraz, nitaz duen irudi ezkorra. Mintza praktika egin nahi duten euskaldun berriak euskaldun iaioagoekin harremanean jartzeko horrelako aplikazioa nola hartuko nuke harrika? Nik neuk emanen nuke izena, plaza batean aspertuta edo larunbat gau batean planik gabe egotera, eta, zuzenean gelditu beharrean, gero topaketa hain hotza izan ez zedin, lehenago txat fribolorako aukera balu, askoz hobea. "Hi, zeren bila habil? Hartzaiela ala jasotzaile?". Ezin omen da nirekin serio aritu.

* * *

Aplikazioak adierazi helbidera joan naiz eta uste baino errazagoa izan da bulegari arretagabeari apaiz katoliko erromatarra naizela sinetsaraztea. Ahal dudanean nire eliz barrutiko agiria bidaltzeko eskatu dit. Halere, kodea eman dit. Profileen "euskaldun egokikorra" idatzi dut. ■